

IRABAZI ITURRIAK

Irabazi iturriari dagokionez, **hiru atal** desberdin izango ditugu diru sarrerak lortzeko. Alde batetik, gure bezeroek bigarren eskuko **arropa alokatzeko** edo beste **erabiltzaileei erosteko** aukera izango dute, hortik, komisio txiki bat lortuko dugu.

Bestalde, bezeroek gure APPan gure diseinatzailen eta modisten sortutako **arropa eta bitxiak** erosi ahal izango dituzte.

Lehen irabazi iturria, gure bezeroek beste erabiltzaileen arropa alokatzeko edo erosteko zerbitzuaren **komisioa** izango da. Hau da, ehuneko bat komisio gisa bat kobratuko dugu bezero bat beste norbaiti jantzi bat erosten edo alokatzen duten bakoitzean. Horrek esan nahi du bezeroek aukera dutela arropa beste bezero batzuei alokatzeko eta zerbitzu hori egiteko epea **30 eguneko**a da gehiegi. Gure diru sarrerak aldatu egingo dira, bezeroak alokatu edo erositako arroparen prezioaren arabera.

Gure bigarren diru iturria ondorengo hau izango da: beren jantzia fidagarria dela eta jendeak alokatzeko edo erosteko orduan zalantzarik izan ez dezan, egiaztatzeagatik ere ordaindu ahal izango dute. **Ziurtagiri** hori prozesu honen bidez lortuko da: norberaren profila segurua dela ziurtatu nahi duen erabiltzaileak erosleak pozik egoteko moduko gutxieneko salmenta bat izan beharko du APPan. Gainera, APPa saltzailearen profilean sartuko da salgai dituen jantziak, egin dituen bidalketak eta eskaerak, APPan duen jarduera (bere jantziak armairu digitalera igotzen baditu) aztertuz eta, batez ere, fidagarritasuna konprobatuz. Horretarako, igo nahi dituen arropen eta informazioaren zehaztasuna egiaztatuko dugu (neurria, kolorea, marka, neurria, materaila...). Azkenik, bezeroak baldintza guztiak betetzen baditu, ziurtagiria bidaliko diogu arropak salgai edo alokagai ipini nahi dituen erabiltzaileare, eta, gainera, APPan duen profilari gehituko diogu ziurtagiria, gainerako erabiltzaileek ikus dezaten.

Azkenik, gurearekin zerikusirik ez duten beste mikroenpresa batzuekin lan egingo dugu, diru-sarrera berriak izateko. **Mikroenpresa** horiek, **ehuneko txiki bat** ordaindu ezker, atal bat izango dute **gure APPan**, eta bertan **beren produktuak salduko** diituzte. Harreman honi esker gure APPak publizitatea lortuko du eta, horrela, mikroenpresa horietako bezeroek gure proiektua ezagutuko dute eta, horrela, gure arropak eta lana kontsumituko dituzte eta diru gehiago irabaziko dugu.

